

2.1-AUZOTASUNA, AUZOA ETA AUZOKOA

Auzoa bere oinarrian nekazaritza jardueragaz zuzen lotuta dago. Euskal gizarte tradizionalan, auzoa sortu eta alkarbizitza arau komun batzuen inguruan egituratu daiten, ezinbestekoa da gizatalde hori lurrari lotuta egotea, leku finko baten; higiezin erabilera antolatzea, herri-ondasunak zehaztea eta baliabide natural eta produktiboen gozamen arautua izatea.

Auzo baten oinarritzko baldintza kokatuta dagoan ingurune geografikoa da. Etxeak non eregi ebazteko orduan, orografia ez eze, klima bere gogoan hartu izan da. Esaterako, ez zan baserririk eregiten iparreko haizeak jotzen dauan mendi-bizkarretan, eta ahal zala, ura egoan lekutik hur egon zitezkan ahalegintzen ziran. Beraz, iturriak eta errekek izan dira sarritan auzoaren kokagunea erabagi dabenak.

Langintza jakin batera emona dagoan gizataldeak eta bizimodurako etxeek osotzen dabe auzoa; talde egonkor legez ageri jakun gizataldea da. Bertakoen arteko hartu-emonak etenbakoak eta iraunkorrak dira. Horrez ganera, hartu-emon horreek oinarritzko beharrianei erantzun izan deutsien erakundeen bidez egituratu izan dira. Auzoko taldeen bidez herri-ondasunen mantenua eta gozamina aratuten ziran. Auzoaren indarra, batez bere, herri-ondasunetan egon da, hau da, auzunea osatzen daben etxeen gozamenerako lurretan.

Auzoa, etxeak bere gain hartu eta konpondu ezin dituan arlo guztietan garatu da. Arazo horreek ez dira materialak bakarrik; espiritualak bere badira, eta arazooi auzo barruan emoten izan jake konponbidea. Auzokako eta ermiten bidezko antolaketak errealitate horri erantzuten deuto. Azken baten, familia baten bizitzaren erdigunea etxea bada, gizarte tradizionalan, bizitza jardueraren esparrua auzunea izan da.

Edadekoek, etxegunerik garaietan, auzoen sorreraren ganeko gomutak gordetzen dabez.

Batean nahi bestean, lehengo eraikuntzak artzain-txabolak izan zirala esan deuskue. Hasieran urte sasoi baterako ziran txabolak urte guztirako etxe bihurtu ziran denporaren porasuz.

Eremurik garaienetako lehen biztanle horreetariko asko artzain trashumanteak izan ei ziran, artzaintzagaz batera ikazkintzan ibiltzen ziranak. Artzainak mendi bizkarretara heldu eta basakortea hartzen eben errentan. Bertan eregiten ebezan euren txabolak, gerora etxe bihurtuko ziranak. Ostera, artzain horreeri esateko, lehenengo biztanleak aitatzean, mairua, jentil edo *moru*

berbak erabilten izan dira sarri, kristauak ez zirala adierazteko.

Auzokoa edo auzoa izatea ez da beste baten ondoan bizitze hutsa. Tradizino-gizartean, auzokoa izateak bertakoen arteko hartu-emonetan betebeharrak eta eskubide batzuk erakarri ditu beragaz, ohituran oinarrituak, eta bizitzako egoera nahi beharriaz guztiei erantzuten izan deutsienak.

Auzokoen artean leku nabarmena beteten izan dau lehen auzoak, hau da, hurren dagoan etxean nahi baserri bereko bestaldean bizi danak. Horrexegaz eukiten da hartu-emon berezia eta beharriaz dagoanean laguntasuna emongo dau. Izan be, laguntasun hori emoteari ez jako uko egiten izan egundo, ez eta bien artean txarto konpontzen diranean edo ikusiezina dagoanean be.

2.2.- AUZOKOEN ARTEKO HARTU-EMONAK

XX. gizaldian, gure lekukoek bizi izan daben sasoiari, aldaketa handiak emon dira bizimoduko esparrurik gehienetan. Auzokoen arteko hartu-emonak ez dira salbuespena izan, gizarte geroz eta indibidualistago baterako jokereak pertsonen arteko hartu-emonari eragin deustso. Lekuko guztiek berba egin deuskue euren gaztezaroko auzokoen arteko laguntzinoa eta hurbiltasuna lege ziran gizarte eredutik emon dan etenbako aldaketaz. Baleitike gizarte aldaketa hori XX. mendea baino lehenago hasi izana, izan bere, lekuko batzuen esanetan, euren gurasoek sarri aitaturten ei eben arteragoko sasoiari handiagoa zala auzokoen arteko alkartasuna eta hurragokoa zala tratua. Lan-mundua etxetik urrundutea, elkar laguntzetik alkarregaz konpentzitzera igarotea eta leku guztietara autoz joatea dira edadekoen artean, gizarte aldaketa ulertzeko, sarrien entzun doguzan arrazoiak.

Gizarte tradizionalan, eta oraindino bere hainbat etxetan, auzokoa etxeko moduan hartzen da, *etxekue lez*. Etxean egiten diran ospakizunetan egoteko eskubidea eta parte-hartzeko modua ohituraz ezarrita egoten izan da.

Bizitzako ohikundeakaz lotutako ospakizunetan auzokoak modu berezian integretan izan dira. Parte-hartzeko arauok usadiozko eskubide bihurtu izan dira.

Auzunean inor hiltzen zanean, kasurako, auzokoen laguntzino zeregin garrantzitsua beteten eben: abisuak, hilaren etxeko beharrak, hildakoari hil-jantzia ipini eta *gaubelan* parte hartzea. Hiletan bere zeregin garrantzitsua eukiten eben, osteko bazkarian egoteaz ganera. Umeen jaiotzagaz lotutako errituetan be leku nabarmena beteten izan dabe auzokoen gizarte tradizionalan. Auzo guztietan egoan *perteriek* leku berezia eukan auzokoen bizitzako une garrantzitsuenetan. Halanda be, gure lekukoek euren bizitzan zehar ikusi dabe pertsonaia horrek zelari galdu dauan gizartearen eukan lekua. XX. mendeko bigarren erditik aurrera gizonek be egiten izan dabez lehenago emaginek beteten ebezan hinbat funtzino, hilak janzte, esaterako.

2.3.-BEHARREAN ALKARRERI LAGUNTZEA ETA AUZOLANA

Auzoko loturak auzoko etxeen artean, alkarregaz, egiten diran beharretan ikusten dira. Gizarte tradizionalan auzo bereko biztanleen jarduerari ekonomikoa sano antzekoa izateak alkarreri lagundutea erraztu izan dau, eta aurrera egiteko ezinbesteko baldintza izaten zan. Alkarreri lagunduteko era ezberdinak egoten ziran. Gure lekuko batzuek, auzo garaietan errotuago itsasadarretik hurrekoetan baizen, euren bizitzan zehar desagertuten ikusi dabez. Alkarlan ispiritua, nekazaritzagaz ez bada, ospakizunakaz lotutako jardueretan oraindino praktiketan dala esan deuskue halanda bere.

Alde batetik zer do zeren ordean egindako beharrak egozan: *ordiek*. Beharra egiteko etxeokoen eskura eukien eskubeharra baino handiagoa behar zanean egiten ziran beharrei esaten jake ordeak. Behar astunak izaten ziran, eta ordearen bidez arin amaitzen ebezan. Gure lekukoaren sasoiari ordea desagertze bidean egoan, eta haren lekuan *aloborien* egiten eben behar

baserrietako neska-mutil gazteek. Hau da, jornalaren truke, sarri jatekoa emoten baeutsien bere. Uzta batzeko sasoiari, nahi baserriko beharrik astunenak egin behar ziranean, etxerik etxe ibiltzen ziran gazteak, aloborean. Ordetik aloborerako jausia auzo bereko etxeen arteko lan zamen arteko desorekak eragin eban. Ordea esaten jako, era berean, auzoko batek besteari egindako opari edo onuraren bidez onuraduna etorkizunean mesedea bueltetako lotzen dauan konpromisoari. Horren adibide da buzkantza edo *mortzillie* egiten zanean etxeke seinak auzokoei eroatea. Auzokoek buzkantzak egiten ebezanean gauza bera egitera derrigortuta egozan, *mortzillek orde* esaten zan.

Auzokoen artean egiten ziran beste behar muetak dohan, ezelako kontraprestazino barik, egiten ziranak ziran: *karitateko beharrak*. Halakoetan, auzokoek presazko edo premiazko beharretan hartzen eben parte, etxekeok, eskulan urria zala eta, egin ezin ebezanean. Seme-alaba txikiak eukiezan alargunen, bakarrik bizi ziran pertsona zaharren edo jazoera tamalgarriren bat igaro jaken pertsonen kasuak izaten ziran.

Bestalde, beharrian kasuetan egiten ziran mailegu materialak, *totuek*, egozan. Auzokoek mailegu materiala egiten eben onuradunaren jatordu baten truke. Totoaren ohiturea ezagutu dabe gure lekukorik gehienak, baina *zaharren gauzie* zala esan deuskue gehienek. Beraz, euren bizitzan, beste aldaketa ugari gaz batera, auzokoen arteko alkertasunean oinarritutako ohitura hori be galtzen ikusi dabe. Toto edo mailegu mueta ez bardin barri emon deuskue adindunek. Esaterako, karabirako *atxarrixen* garraioa totoan egiten eben, karabia pribadua bazan bere, gero karea behar izango eben auzokoen artean. Bardin egiten zan otea nahi irea batzeko, bedar sikuetarako, garietarako... *Karreteruek* be, zereginik ez eukienean garraio beharrak egiten ebezan toto modura, jatordu truke. Lekuko batzuen arabera, totoaren jatorria etxe askotako jaubeak ziran lurjaube handien eta euren lurretako errentadoreen arteko hartu-emonean ei dago. Errenta merkeak ipinten ebezan lurjaube handiek, baina trukean totoak eginarazoten eutsiezan errentadoreei, jatordu baten truke. Toto beharrak etxerik etxe, txandaka, egiten ziran auzo batzuetan.

Azkenik, badagoz auzokoen artean urtero, edo beharrian egoanean, egiten ziran beste behar batzuk, *auzolana* esaten jakena. Auzoaren egiturari eragiten eutsien beharrak izaten ziran. Etxe guztientzat ezinbestekoak ziran beharrian aurre egitea zan helburua. Horren adibide dira urtero, udagoien inguruan, bideak eta andabideak garbitu eta ubide edo *sangraderuek* auzokoen artean egitea, eskoletan lehengaiak Aldundiak emon baina eraikuntza beharrak auzokoen artean egitea, kultura-etxea egitea, ermitara egozan mailen mantenua, geroago aitatu doguzan ermitakaz lotutako beharrak, herri-lurrak aztertzean jorratuko doguzan *itxosuetan* nahi beste baso batzuetan alkarregaz egiten ziran lanak, domekaroko erromerien antolakuntza beharrak.... Derrigortuta egozan auzolanean parte hartzera auzoko gizon guztiak, hainbat beharretan etxe bakotxetik bat gitxienez. Garia batzea zan moduko behar gogorretan etxe bakotxetik hiru joatera derrigortuta egozan. Derrigortasun hori ez beteteak, sano txarto ikusita egoteaz ganera, ohituraz

ezarritako isuna izaten eban. Gehienetan, auzolan osteko jatordua emon edo ordaintzea izaten zan. Auzolan gehienak udagoiengan egiten baziran be, batzuk, beste urtaro batzuetan egiten ziran, neguko eurien ostean leixiba harriak euren lekuetara bueltetea, esaterako. Ganera, ustekabeak eragindako auzolanak be egoten ziran. Ermita eta andabideakaz lotutakoetan abadeak deitzen eban auzolanera. Auzoa eleiza eta ortusantuagaz alkartzen ebazan bideetan, *andabidietan* konponketari garrantzi berezia emoten jakon. Auzokoren bat hiltzen zanean, auzokoek eurek garbitu eta atonduten eben hildakoaren etxetik eleizarako bidea. Beste hainbat auzolanerako deialdia udalak bideratzen eban, auzo-alkateen bidez. Figura hori sano antxinakoa ei da . Erdi Aroan, daborduko, auzo-alkateen barriak agertzen jakuz Ahaide Nagusien burruken barruan funtzino militarrek beteten.¹

2.4. ERMITA ETA AUZOA

Ermita edo baselizen ugaritasuna da euskal giza paisaiaren ezaugarrietako bat. Ermitek funtzino garrantzitsua beteten izan dabe nekazal auzoen bizitzaren barruan.

Ermitan auzoko bizitza kultural guztia batzen zan, batez be ermitaren santuaren egunean, bezperan eta osteko egunetan. Auzoagaz lotutako guztiek jai horretan parte hartzeko derrigortasuna eukien, zeozelan esateko. Kanpora ezkonduak, nahi beharrera joandakoek, ahalegin berezia egiten izan dabe beti ermitako ospakizunaren egunean bertan egoteko. Ermita bakotzak bere jaiegun handia dauka, inguruko egunakaz batera.

Derrigortasun hori ez da soilik ospakizunen esparrura mugatzen, ermitetan konponketa beharrak egin behar izan diranean, auzokoen artean antolatu dira. Ermiten mantenurako lan danak beti bere auzokoen beharraren bidez auzolanean egin dira.

Auzoetako egitura kolektibo guztien bilgune, eta batzarleku nagusia, ermita ataria izan ohi da. Esaterako, ermitaren atarian egiten ziran ermandadeetakoko batzarrak.

XX. mendeko bigarren erdian, ermita batzuek moldaketa lanak izan dabez,. Bertan txoko modukoa egin da, eta sasoi baten ermita atariak beteten eban funtzinoa beteten dau orain. Bertan batzen dira auzokoak komunidadeko bizimoduagaz lotutako ospakizunak antolatzeko eta auzo-batzarrak egiteko. Izaera administratiboa daukien lanak, ostera, udaletxean eztabaidatuten dira gaur egun.

Ermitak dagoz gure ikerketan bereiztu doguzen auzo guztietan, batan baten izan ezik. Ermitarik ez egokeran, etxe ezbardinek hartu dabe komunidadeko antolakuntza ardazteko ardurea.

Azpmarratzekoak dira Pagozarreta edo *Paixarreta* eta *Urkixobe* , pago eta urkiagaz lotutako etxe toponimoek zeon garrantzia berezia hartzen daben halako kasuetan..Etorkizunean interesgarria litzateke leku bi horreen izaera sinbolikoaren ganeko ikerketan sakontzea. Izan bere, lehenengoa basakorta izatearen memoriak eta bigarrenaren izenak Bizkaiko beste leku sinbolikoki garrantziatsuakaz daukan antzerakotasunak auzo egitura zaharren ganeko argibideak emon leikiguz.

¹ **Labayru**, *Historia de Bizkaya*, III Alea, 554. or

Ermita jagoteko zeregina beti egon da ermitari lotutako auzokideen ardurapean. Gure lekukoek esan deuskuenaren arabera, gehienetan ermitari deusola dagoan etxeokoe izan dabe ardura berezia. Ermita ondoko etxeokoe andrak, antxina serora esaten jakonak, garrantzi berezia euki dau ermitaren zaintzan. Garbitasunaren eta argiaren ardurea eukan, eta kasu batzuetan, oraindino bere badauka. Auzoko garaitiko etxeokoe neskatoek behar horreetan lagunduten eutsien ospakizun nagusien aurreko egunetan. Amerikarako emigrazinoak horretan bere bere eragina eduki dau. Auzo batzuetan ermitako giltzak auzoko danek daukiez eta domekaro mezea egoteko be guztien artean ordainduten dabe dirutxu bat.

Ermitetako kanpaiak behar-beharrezkoak izan dira komunikazinoari begira, barriagoak diran erlojuakaz batera. Basoetan beharrean ebizenak orduaren barri jakin egien balio eben batzuek nahi besteak. Surik egoanean, batzarretara deitzeko eta beste hainbat zereginetarako erabilten izan da tradizionalki kanpai hotsa

2.5. AUZO-ALKARTEAK EDO LAGUNTASUN MODU TRADIZIONALAK.

Auzoaren esparruan antolaketa sozial eta politikorako egitura bat egon izan da historian zehar: kofradia. Antolaketa hori auzo-lurren kudeaketagaz estu loturik egon da, eta ondorioz, guztien gozamenetarako ziran lurak pribadu bihurtuten joan ahala, antolaketa eredu hori desagertuten joan da. Bizkaia eta Gipuzkoan gerrate karlisten ostean emon zan aldaketa hori, geroago ikusiko dogun legez, eta horren proba argia da edadekoe artean ez dogula antolakuntza eredu horren zidorrik batu. Herrietan lotzen diran herriaren jabetzako alor apurren kudeaketa udalak egiten dau, Durangaldean eta Arratian, esaterako, oraindino bizi diran auzo egitura kudeatzaileen laguntzino barik.

Baso-beharrei jagokezanak era pribaduan eta jornal truke egiten izan dira, gitxienez, XX. mende hasieratik; ordurako, herri lurak ziranak lurjaube handien esku edo baserrien artean partzelatuta egozan.

Akabuko hamarkadetan, herri-alkarte barriak sortu dira, esaterako, zaharren alkarteak.

Edadekoe herri-alkarteak XX. mende amaierako kultur adierazpen garrantzitsua dira. Euskal Herri osoko gizarte modernoaren arazo eta konponbide ahaleginen barri emoten deuskue.

2.5.1-ERMANDADE ETA SINDIKATUAK

Ezbeharrei bakarrik aurre egitea gogorra izan da beti. Horren aurrean, unerik gatxenetan, alkarri babesa emoteko erakundeak sortu izan dira gizarte tradizionalen. Alkarlanak emoten dauan indarrak jabetuta, egun aseguru-etxeokoe opesten deuskuezan zerbitzuen sano antzeko beharrianak beteten ebezan alkartasun egiturak egon izan dira, eta neurri baten oraindino bere badagoz.

Etxerriena edo suaren aurkako ermandadea: Mendi bizkarretako lekuko artean aurkitu dogu bizien *etxerriena* esaten jakon ermandade muetaren gomuta. Oraindino be mantenduten da alkartasun hau hainbat etxetan: Sutearo izena dauka eta Bizkaia osoko etxeokoe hartzen dabe

parte, Sukarrieta, Busturia eta Muruetako etxeek egitura bereiztua badaukie bere. Orain gitxi arte, Muruetako baserri bateko atartean egiten ziran ermandade horretako batzarrak.

Lehenagoko Etxe-errearen ermandadearen gomuta argiena daukien lekukoak inguruko etxeren bat erre izana bizi izan dabenak dira. Adibiderako, Busturiko lekukoek gomutan daukie zelan erre zan gerraostean Zabale etxea. Antxina arrisku handia ei egoan baserriak erretako, dana izaten zalako egurra, bedarra, otea... Orduko kurtzulu, farol edo zuziakaz zuhur ibili ezik, erraza izaten zan etxeak su hartzea. 1989. urtean Unbetik Sollubera zabaldu zan suak bildurra berpiztu eban eta gaur egun be tentu handiz ibiltzen dira mendi bizkarretako biztanleak.

Antxinako Etxe-erre ermandadean, *kabu* izeneko arduraduna izentatzen eben urtero. Etxea tasau egiten zan, eta surik hartu ezker, horren araberrako kalte-ordaina emoten jaken bertan bizi zirane. Suaren ostean, etxeko berreraikitze lanetara ermandadeko etxe bakotxetik lagun bi joaten ziran domekaro. Hortik gora, aste barruan bere laguntzen eben, baina derrigortasuna ez zan berbera. Etxea altxetako lehengaiak eukiezanek be horreek emonda lagunduten eben.

Esaterako, Zabale etxea erre zanean, Montemoro etxeok haretx bi emon eutsiezan, hageak egiteko. *Etxe-errien* ermandade bakotxean 20-40 baserri egoten ziran. Urtean egun bat seinalatua izaten zan, urteroko batzarra egiteko. Lehen aitatu dogun *kabu* beharra egiten ebanari bizpahiru gizonek lagunduten eutsien. Ermandadetik inor ataraten zan bakotxean beste bat sartzen zan haren lekuan.

Etxerik erreten zanean herritik kanpora urtetzen eben ermandadekoek poltsagaz, etxerik etxe, borondate eske. Horretarako eskearen nondik norakoak azaltzen ebazan ganorazko paper bat eroaten eben. Berreraikitze beharrak amaitukeran, etxeok jatordua emoten eutsien beharrean fin ibilitakoei. Hau da, jatordua ez jakon arrasti bakarra edo gitxitan joandakoari emoten, baizen eta hainbat egunetan jarraian laguntzen joandakoei.

Ganadu ermandadea:

Abereek jasan eikezan ezbarrei aurre egiteko, ganadu ermandade bat baino gehiago egon da XX. mendean zehar. Etxe bakotxari jagokon ermitaren arabera antolatzen ziran lekukoak. Esaterako, lurrez Busturia baina eleizaz Almika diran etxeetakoak almikarrakaz antolatu izan dira ermandadeen moduko auzo-alkarte danetan. Urtean behin batzen zan ganadu ermandadea, urtarrileko San Antonio egunez gehienetan. Goizean mezetara joiazan ermandadeko kideak alkarregaz, bertan listea pasetan zan, eta gero, alkarregaz bazkaldu ostean, urteko batzarra egiten eben. Bertan, tasadore aldaketea egiteaz ganera, urteko gorabeheren barri emoten eben. Hiru tasadore eta *maiordomu* bat egozan abere ermandadeetan. Tasadoreak ermandadeko etxe guztietatik igaroten ziran San Antontxu aurreko astean. San Antonio egunez, etxe bakotxak bere aportazioa pagetan eban, ez urteko hainbatekoa. Hasikera baten, gure lekukoak umetxuak ziran sasoian, urtarrileko San Antonio egunez abereak landa batera batzen ziran, ermita aurrean

egiten ebezan batzarrak eta ondoko landara batzen ebezan abereak.. Ganadu ermandadeko zelanbaiteko burua maiordomoa izaten zan, gure lekukoen esanetan, *eskolarik gehien* eukana izentatzen eben.

Nekazari sindikatuak:

Nekazariak, abeltzainen moduan, kooperatiba edo sindikatuetan alkartuten izan dira euren beharrezan hobeto erantzuteko. Alkartuteak ekarten eban onurarik handiena guztiek erosketak batera eginda salneurriak merketutea zan. Kamioiak nekazariak behar ebena sindikatuetera ekarten eban (ongarriak, bedar sikuak, erremintak...) eta, handik, baserrietara gurdi edo astoz igaroten ebezan.

Kooperatibez ganera, nekazariak behar ebena partikular moduan saltzen ibiltzen ziranak bere baegozan.

2.6-HERRI-LURRAK ETA BASO PRIDADUAK

Herri-ondasunak, lur eta baliabide naturalen gozamenaz ganera; herrien bizimodu kolektiboa adierazten dau. Baliabideak beti izan diranez urriak, herri-ondasun batzuk gorde egiten ziran, etxe guztietako jatekoa eta gitxieneko baliabideak ziurtatuteko. Baliabide horreen gozamina herritar guztiena zan.

Hasiera baten, mendi bizkarretan egozan auzoetako bizibide nagusia artzaintza zan.

Goierrietako lekukoen gomutan dagoan moduan, artzainek basakortak alokatzen ebezan, bertan artzain-txabolea egin, denporagaz txabola etxe bihurtu eben eta ibiltariak izateari itxi eutsien.

Akabuan, abeltzaintza eta, neurri txikerragoan, nekazaritza, bihurtu ziran auzo sakabanatueterako biztanleen bizibide nagusi. Prozesu horretan, hasikeran, herri-lurra ziranek zer edo zelako pribatizazio prozesua jasaten eben. Etxe bakarraren ustiaketerako izaten amaitzen eben eta.

Edozelan bere, herri-lurra, XIX. mendeko foruen defentsarako gerrateak galdu ostean pribatizatu ziran. Madrileko gobernuak isun gogorak ezarri eutsezan foruen alde altxau ziran lurraldeei, eta isun horreek ordaintzeko herri-lurra saldu ebezan udalek. Prozesu horren ondorioz, Sota eta Lezama-legizamonen moduko lur-jaube handien eskutan lotu ziran lehenago herritar guztienak ziran lur eremu zabalak. Baina jabetza aldatu arren bere, herritarrek bertatik behar ebezan lehengai eta erabilpenak egiten jarraitu eben, totoaren antzekoak ziran mailegu txikerren truke. Bertako lekukoek baso-esparrutik otea hartzen eben libre antzean. Beste herri-lur zati batzuk herritarrek erosi ebezan, loteka. Esparru handiak ziranean, etxe moltzoka antolatuta eta, egurra behar truke nahi egur-piloatan axkora markak egitearen bidezko zozketak egiten ebezan lanean ibilitakoen artean. Ibarretako etxeen jabetza bihurtu ziran mendi bizkarretako basorik gehienak. Goialdeko biztanleak lur-jaube handiakaz lehen aitatu dogun hartu-emonaren

bidez konpontzen ziran, hainbat etxek euren baso loteak eukita bere. XX. mendean zehar, herritarrak berreskuratzen joan dira aurretik kanpoko dirudunek erositako lurrak. Azpimarratzekoa da herri-lurrak ez dirala soilik mendi bizkarretan egon. Lekuko guztien akorduan dago egun suntsituta dagoan *itxosuek* izeneko lur eremua. Itsasoari *luganak* eginaz irabazitako esparrua ziran *itxosuek*. Herri-lurrak ziran arren, 1917an partzelaka saldu ziran, eta herriko nekazari eta abeltzainek erosi ebezan. Bertan ereiten ebezan hamaika jenero. Lur heze eta emonkorrak ziran, batez bere sikate sasoian. Herritarrek zohiak atara eta munak eginda hesitzen ebezan euren partzelak, bata bestearengandik bereiztu eta itsasoarengandik babesteko. Tenporalak egoten ziranean, munak apurtu egiten ziran, eta herritarrek auzo-lanean konpontzen ebezan. 1941eko traganarruak, ostera, *itxosuek* guztiz apurtu ebazan. Edadeko bateri baino gehiagori entzun deutsegu itsasoaren ganean esaten: “*berana dana, berandu edo arinau beragandu eitxen dau*”. Barku bat erosi eben luganak apurtu ziran lekuan ipinteko, lurrez beterik, baina ez zan egon modurik lur eremua berreskuratuteko. Urteen podazuz Madrileko gobernua egin da lehen *itxosuek* esaten jakon –herri-lurren jaube, gure lekukoek euren gurasoek eremu horreek erosi eta mantenduteko egin ebezan ahalegin itzelak gomutatuzeko gutunak idatzi deutsezan arren.

Abereak bertan bazkatzeko eta azpigarria nahiugarria lortzeko moduak herri-lurren araudi itxuran mantendu zan XIX. mendetik, beharizan horien desagerpenera arte. Baina basogintza, zuhaitzen ustiapena, era pribatuan emon da pinua ereiten hasi zanetik gitxienez. Horrek, jorrala irabazteko modua emon eutsen baso-beharretan sartu ziranei, karreteru nahi esku-behargin; eta motore ekonomikoetako bat izan zan XX. mendeko erdialdeko hainbat hamarkadetan zehar. Lur pribatuak alkarrengandik bereizteko modu ezbardinak erabili izan dira XX. mendean zehar. Erabiliena munarri edo *mojoiek* ipintea zan. Mugarriak hare-harrizkoak izaten ziran eta ganean kurtzea egiten eutsien, legezkoak zirala jakin egien. Mugarriak ipinikeran lekuko bat egoten zan aurrean. Munarri azpian teila ipinten eben, eta kasu batzuetan harriak etxe inguruetako hormetatik ataraten ebezan. Solo edo terrenoa baino arean altuago dagoan gorauneari *motie* esaten jako. Hori ez zan labretan, motaren azpian muna dago, eta bertan ipinten zan *munarrix*.

Kredituak eta baimenak.

Egilea: Freddi Paia

Data: 2011ko uztaila.

Baimena: Creative Commons [Aitortu-PartekatuBerdin 3.0](https://creativecommons.org/licenses/by/3.0/)

Oharra: material hau interesa duen edonoren esku jartzen da Creative Commons Aitortu-PartekatuBerdin 3.0 lizentziarekin. Lizentzia honekin edukia kopiatu, banatu eta erakutsi ahal izango dituzu, ondorengo baldintzak beteaz:

- Edukiaren jatorrizko egilea aipatu behar duzu.
- Lanaren kopia zein banaketa askea da.
- Lan eratorriak, jatorrizko egiletza aitortzeaz gainera, baimen (lizentzia) berdina izan beharko du.